

## V - BESTELAKOAK

### URAREN EUSKAL AGENTZIA

#### MENDEBALDEKO KANTAURIAR ARROEN BULEGOA

#### **Aiarako udal-mugartean (Araba) Etorki S. Coop. kooperatiba-sozietatearen jardueratik datozen euri-jariatzearen hondakin-urak isurtzeko baimena**

Espediente-zenbakia: VDP-B-2019-0015 / V-48-01168

Eskatzailea: Etorki S. COOP

Etorki S. COOP sozietateak Uraren Euskal Agentziaren Mendebaldeko Kantauriar Arroen Bulegoari eskatu dio bere jardueratik datozen euri-isurketako hondakin-urak isurtzeko baimena, eta horretarako dagokion dokumentazioa aurkeztu du.

Hori guztia jendaurrean jartzen da, guztiak jakinaren gainean egon daitezen, hogeita hamar eguneko epearen buruan, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta biharamunetik hasita, eskatu den baimenaren ondorioz nolabaiteko kalteren bat hartuko dutela uste dutenek erreklamazioak aurkez ditzaten, Aiara Udalean edo lurralde-bulego honetan (Urkixo Zumarkalea 36-7. solairua-48011 Bilbo). Espedientea han egongo da ikusgai.

Bilbo, 2020ko irailaren 10ean

*Mendebaldeko kantauriar arroen bulegoburua*  
**MARIAN ALONSO PRIETO**